# I CANICROSS BURDINEZKO MENDIAK BIDE BERDEA

# V. BIZKAIKO CANICROSS TXAPELKETA 2018

# PROBAREN ARAUTEGIA

**1.ANTOLAKUNTZA**

Bizkaiko Neguko Kirolen Federazioa eta  Enkarterrialde (Enkarterri eskualdeko landa garapen Elkartea).

**2.TOKIA**

Irteera/Helmuga: La Aceña-ko( Galdames) tren geltokia izandakoaren eraikin alboan, Burdinezko Mendiak bide Berdean.

**3.OSPAKIZUN EGUNA ETA ORDUTEGIA: Igandea 2018ko azaroak 4**

8:30 Albaitariaren kontrola

9:45 Informazio bilera

10:00 Lasterketaren hasiera

12:00 Sari banaketa

**4. PARTE HARTZEA**

Lizentziadun kirolariak (Federatuak) 14 urtetik gorakoak

Lizentzia gabeko kirolak (Federatu gabeak) 18 urtez gorakoak

**5.IZEN EMATEAK**

Izen emateen kudeaketa Bizkaiko Neguko Kirolen Federazioak burutuko du Bilboko Martin BaruaPicaza kaleko 27.zenbakiko 3.solairuan. Harremanetarako telefono zenbakia 94 441 10 63. Helbide elektronikoa info@fvdi.org, 2018ko urriaren 31ko 13:00ak arte.

IZEN EMATE KUOTAK:

Lizentziadun kirolariak (Federatuak) 14 urtetik gorakoak. Prezioa 10€

Lizentzia gabeko kirolak (Federatu gabeak) 18 urtez gorakoak. Prezioa 14€

- Bizkaiko Neguko Kirolen Federazioko hurrengo kontuan sartu dirua ES32 2095 0360 18 3830811741

**6.DORTSALAK**

Lasterketako egun berean emango dira

**7.ALBAITARIAREN KONTROLA**

Albaitariaren kontrola profesional honek burutuko du: Sergio Llamazares Lopez. BI 958 Kolegiatua.

Albaitariaren kontrolean honakoa ikusiko da

- Derrigorrezko txertaketak
- Txakurraren txipa
- Txakurraren egoera orokorra

Kirolariak kontrol honetan Txakurraren pasaporte edoTxertaketaKartila eguneratua aurkeztu beharko ditu, kolegiatutako albaitari baten sinadura eta zigiluarekin. Derrigorrezko mikrotxipa duenaren ziurtagiria ere aurkeztu beharko da.

Derrigorrezko txertoak honakoak dira: amorruaren aurkakoa, txartobalioanitzduna (parvovirosia, leptospirosia, mukieria, hepatitisa gutxienez) eta txakurtegietako eztularena, txakur laringotrakeitis infekziosoari aurre egiteko.

Txakur parte-hartzaileek gutxienez urte beteko adina izan beharko dute lasterketa burutu aurretik

**8. ZIRKUITUA**

Zirkuitua Burdinezko mendien Bide Berdetik igaroko da eta Galdames udalerriko mendietatik. Zirkularra izango da. Distantzia: 7,5km.

**9.MAILAK**

Lizentzia duten parte hartzaileentzat (Federatuak):

- Juniorrak, gizonak eta emakumeak:2000-2004
- Seniorrak, gizonak eta emakumeak:1979-1999
- Masterrak,gizonak eta emakumeak: 1919-1978

Lizentzia gabeko kirolarientzat /Lasterketa herrikoia ( Ez Federatuak)

- Seniorrak, gizonak eta emakumeak:1979-1999
- Masterrak,gizonak eta emakumeak: 1919-1978

**10.SARI ETA GARAIKURREN BANAKETA**

Proba bukatzean burutuko da eta honakoei emango zaizkie:

- V Bizkaiko Txapelketa (Federatuak) Lehen 3 sailkatuak Junior, Senior eta Master mailetako emakumezko eta gizonezkoetan.
- Senior eta Master mailetako lehen sailkatuak emakumezko eta gizonezkoetan (Federatuak).
- Lasterketa herrikoia (Federatu gabeak). Lehen 3 sailkatuak Senior eta Masterretan.
  Lasterketa herrikoian ez da junior maila egongo.
  Aipatu proba Euskadiko eta Espainiako Neguko Kirolen Federazioen Arautegiez arautuko da.
  Arautegi hauetan adierazten ez diren gaiak Lehiaketako Epaileak ebatziko ditu.